

## **Kizkitzako Ama: arrantzaleen gidari den lehorreko Birjina**

Kizkitzako Ama Birjinaren ermita Itsaso izeneko herrian dago, Gipuzkoan. Herria eta Mandubiko mendatearen tartean dagoen tontorrean kokatua dago. Eta barruko aldare nagusian Ama Birjinaren irudia itsasontzi baten gainean kokatua dago. Horrela lehenbiziko aldiz ikusi genuenean harritu egin ginen, baina badu bere zergatia.

Hemengo mendi magaletan pago tantaiez osatutako ohian galantak daude, eta hala omen zeuden aspaldian ere. Gipuzkoako itsasertzean dauden herrietan arrantzaleentzako itsasontziak egiteko zeuden ontzioletan egurra behar zutenez, hemengo pago-enborrak eramaten omen zituzten. Eta arrantzaleak hau jakinik, debozio handia omen zioten Kizkitzako Ama Birjinari.

Gainera, egun argietan, gure itsasertzeko Orio eta Zumaia tarteko itsasotik ikusi egiten da ermita hau eta arrantzaleek oso gogozkoa omen dute Kizkitza. Horregatik oparitu zioten euskarri bezala duen itsasontzia.

Eta ez hori bakarrik. Gure arrantzaleek, gauaz arrantzan zebiltzala ere, Ama Birjinari zerbait eskatzeko zutenean ermitari begiratu nahi zioten, eta non zegoen jakitearren, denon artean, XX. mendeko 60. hamarkadaren hasieran, Itsasoko bikarioari eskatu zioten argindarra bertaraino eraman, zementuzko tantai baten goiko muturrean itsasontziak masta nagusiaren puntan edukitzen duen farola lortu eta eurak itsasotik ikusteko moduan jartzeko ermitaren aurrean.

Urte batzuk lehenago ermita erreta zegoen, eta bikario jauna hasita zegoen herriko baserritarren arteko auzolanean hura berreraikitze lanak nola egin pentsatzen eta hitz egiten. Orain, bere gogozko beste lan bat gehiago zeukan. Laster idatzi zuen itsasoko ministeriora eta, denbora batera, Tarifatik bidali zioten Kizkitzako faroaren lana egingo zuen goian aipatutako linterna. Ermita berreraiki zuten, bertan Ama Birjinaren irudia jarriaz, eta arrantzaleen nahia betetzeko lanetan hasi ziren.

Argindarra eraman ahal izateko, baserritar batzuek, beren tantai bat bota eta zutoina eskaintzen zuten. Beste batzuek berriz, gurdian hauek garraiatzeko eskaintzen zuten beren burua. Beste batzuek, bidean zuloak egin eta zutoinak zutitze lanak egiteko prest azaldu ziren. Denen artean, auzolan ederrean, argindarra Kizkitza gaineko ermitaraino iritsi zen eta, zutabe handi baten gainean, gauaz herritik pizten zen arrantzaleentzako argia jarri zuten. Denak pozik. Hala jarraitu zuen, baina ez urte askoan.

Gure Kantauri itsasoan, arrantzaleez gain, beste itsasontzi asko ibiltzen dira eta, argi berri hura ikusten zutenean, aztoratu egiten ziren nabigazio-kartetan ez baitzegoen argi hura adierazita. Eta kanpotar batek baino gehiagok itsasoko ministeriora kexa sartu zuten, eta honek argia itzaltzeko agindua eman zuen. Betebeharra zegoen, eta gure arrantzaleak beren Kizkitzako Amaren argirik gabe gelditu ziren.

Baina ez zeuden besoak gurutzatuta gelditzeko. Berehala hasi ziren argi hura nabigazio-kartetan azaldu zedin, ministerioan gestioak egiten. Eta etenaldirik gabe beren arrazoia azalduaz, azkenean beren helburua lortu zuten eta, ministerioak

Kizkitzako itsasargia kartetan jarri ondoren, gure arrantzaleen pozerako berriro pizten da iluntzero.

José Zufiaurre – Etniker Gipuzkoa – Etniker Euskalerrria Taldeak

Bibliografia: Antxon Aguirre & Koldo Lizarralde. *Ermitas de Gipuzkoa*. Atun, 2000.